

# B

BARREN

TOKIKOM



# Etorkizunerantz, eskuz esku



ESKERTZA

## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Orain joan zara gure ondotik  
betirako urrutira  
baina ikustean izar argitu  
ta eder baten disdira  
pentsatuko dugu goitik zaudela  
guri begira.*

Familiakoak

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana



## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Goizero esnatzean  
Azkaratera begiratuko dugu, Amaia,  
eta han topatuko dugu  
zure irribarrea.  
Ederra izan da  
zure laguna izatea.  
Mila esker, Amaia.*

2014ko otsailaren 18an hil zen,  
44 urte zituela.

Maddi, Malen, Sara eta Malen.




## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Izan zarenagatik  
erakutsi duzunagatik  
guk bihotz barreanean  
eramango zaitugu beti.*

2014ko otsailaren 18an hil zen,  
44 urte zituela.

Zure betiko lagunak,  
Amaia, Jone, Goretti, Ana, Jone, Arrate,  
Miriam, Mila, Gloria, Mari Mar, Arrate, Marisa.





Mikel  
Olaizola

Eup, Danele!  
Bost hilabete joan dira Bartzelonan lur hartu genuenetik; beste horrenbeste unibertsitateko ikasketetarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari beka eskaera helarazi nionetik. Eta oraindik, ia urte erdi beranduago, berdin da-



Danele  
Sarriguarte

Miquel: Belearena egitea dagokidan honetan, erabatekoegi deritzet "irabazi" edo "honi buelta eman" bezalako kontzeptuei, eta, beraz, zure konfirmazio-eskaerari ezin diot erantzun buru-keinu baikor batekin, jarraian, 'baina' mordoxka gehitu gabe. Ez dakit irabaziko dugun. Zer irabazi behar dugu? Nor gara gu? Ez dakit buelta emango diogun. Zer da, zehazki, buelta eman beharrekoa?

rrait, erantzunik gabe.

'Pazientzia', esango dute askok. Bada, hasia zait agortzen. Estatuaren kontrolak badakien honetan guri buruzko daturik xumeena ere, zer esanik ez gure errenta eta ondareaz, batera eta bestera mareatzen gaitu alferreko dokumentu eta paperekin. Burokrazia izan dut lizentziatura guztiko asignaturarik zailena! Eta azkeneko zerbait txarra egiten ari naizela ere sentitzen dut, traban eta denak aztoratzen, kilo erdiko matrikula duen master ofizial bat ikasi nahiagatik langileen seme izanda. Ustez publikoa den unibertsitate batean. Ez diezadatela kontatu gero denok aukera berdina dugun ipuina.

Nire zalantza horiek argitzeko orduan nahiko seguru nago bat gertozkeela biok, hemen ere aurkitu baititugu eztabaida-kideak garagardoen bueltako tertuliei segida emateko, eta antzeko bideak haztatzen gabiltzalako denok, baina gure lagunartearena baino adostasun handixeagoa beharko genuke aurrera begira, ala?

**“Alferrik da pentsatzea olatu honek bustitzen ez gaituenik; ezinezkoa aterpea aurkitzea”**

Izerdi asko bota dute gurasoek gugatik, oparotasunaren bide hipotetikoan, beraiek egin gabeko ikasketak guk egin genitzan. Badakigu, ordea, norantz goazen: burgestxoek monopolizatuko dute goi mailako hezkuntza. Hau da, langileon seme-alabak, beti lanera kondenatuak.

Ez nator, baina, hona negarrera, Danele. Agertu nahi dudana da neuri ere eragiten didatela, alajaina, boterearen erabakiek eta egiturek, zeuri bezala, eta irakurtzen gaituzten guztioi bezala. Alferrik da pentsatzea olatu honek busten ez gaituenik; ezinezkoa aterpe bete aurkitzerik. Batzuek gordinago kolpatuz, kartzelak erahildakoak kasu, besteak zetazko ukabillez, eta markak ezkutuan. Abortuaren lege berriak, lan-esplotazio betikoak, sistema publikoaren desmantelamenduak eta komunaren espropiazioak tartean. Eta, halere, nago, irabaziko dugula.

Buelta emango diogula honi, Danele? Baietz?

**“Protestatzea dugu bide. Erresistitzea eta alternatiba(txo)ak sortzea”**

Harritu dira batzuk, azkenaldiko egoerak argi eta garbi erakutsi dienean estatuaren ahalguztiduntasuna. Estatuak dena ahal duelako, eta ez duelako, preseski, altruistaki edo gizatasunez jarduten. Ez guk ezagutzen ditugun estatuak, bederen. Harritu dira batzuk indarkeria gordinki ikustean, harritu ustelkerien zigorgabetasuna egunkarian irakurtzean, harritu euren gorputzetan sentitzean hiritar gisa zegozkien eskubideak miramendurik gabe debeka daitezkeela. Eta sinbolotoxak gehitu dizkiete euren twitterreko avatarriari.

Ni ez naiz harritu. Amorratu naiz, enegarrenez, baina ez naiz harritu. Eta ez naiz adoregabetu. Baiezko biribilik ezin diezazuket eman, melodia lasaigarrik ezin dezaket abestu. *Everything is gonna be okay*-rik ez guretzat. Baina ez naiz adoregabetu. Protestatzea dugu bide. Erresistitzea eta alternatiba(txo)ak sortzea, elkarri laguntzea, pentsatzea, kexatzea, mintzatzea. Maitatzea dugu bide.

Eta ez gara adoregabetuko.



ESKERTZA

**AGUSTIN OÑEDERRA IRURETA**

“Garro”

2014ko otsailaren 15ean hil da, 86 urte zituela  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK

elgoibar  
bizitzeko



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik

### Hartu kontuan

Otsailaren 1ean erosketak egitera joan nintzen, eta Santa Ana kalean 'Titanik'-eko etheen ondotik oinez nindoala, norbaitek zigarro bat bota zidan leiho batetik. Ez nuen ikusi nor izan zen, baina aterkia erre zidan. Zer gertatuko ote zitzaidan aterki barik joan izan banintz? Zer gertatuko zen zigarroa txamarrako txanoan edota ilean erori izan balitzait? Eskerrak azkar konturatu nintzela eta kalte gehiagorik ez nuela izan.

Udaltzainei esanda daukat, baina ezin dut salaketarik jarri, ez dakidalako nor izan zen.

Eskertuko nuke nire istripuaren kasua ikusita, jendeak kontuan hartzea halakoak, berriz gerta ezdadin.

L.P. ©

### Idoia Lakari

Joan zara, izan zaren bezala, danok aho zabalik lagata.

Bizitza tren bidaia baldin bada, batzuk leiho ondoko eserlekuan jartzen dira, eroso eta bista onekin, eta bide luzia egitten debe horrela. Zu, ordia, pasillo aldiari jarri izan zara, errazago mugitzeko eta mugitzerakuan albokuari trabarik ez egituko, eta gaiñera, leiho ondoko jarlekua eskaini beti. Geltoki guztixetan jaitsi, lekuan lekuko jendiarekin bat egin, haien artian murgildu eta gaiñera, festa antolatu bertan! Ondoren, maletia hartu (zure maleta haundi hori... *jeje*) eta berriro trenera... Aurrera. Beti aurrera!

Mundu hau laga zendun astelehen hartako iluntze goibel eta euritsuan Urrestillako lagun batek esan zian: "Penia daket ez naizelako heldu ezautzea", eta irribarria irten jatan... a zelako zortea izan dudan pentsatu naban! Tren bidaia hontan batera tokau gara puxketa batian, eta a zelako ederra!

Astelehenian zure urtiak... laz, San Pedroko soziedadian afarixa, aurten beste gain batian bazkarixa. Zelebrau eingo dogu, ezagutu zaittugula, gure artian izan zarala, zure falta igartzen dogula... Maitte zaittugulako.

N. I. ©

### 'Catalunya etorkizunerantz!'

Arnaldo Askatu herri ekimenetik eskerrak

eman nahi dizkizuegu aurreko ostiralean David Fernandez CUPeko diputatuak eta Martxelo Otamendik eskaini ziguten *Catalunya etorkizunerantz* jendaurreko elkarrizketara gerturatu zireneten herritar guztioi.

Ekitaldi arrakastatsua izan zen. Musika Eskola jendez lepo bete zen, eta elkarrizketa zinez interesgarria izan zen benetan (Vimeo atarian eskegita daukazue, nahi izanez gero).

Bide batez, eskerrak baita ere Davidi eta Martxelori, borondate hutsez, zehaztasunez betetako panorama marraztu zigutelako Catalunya buruz, itzeleko dotorezia, ezagutza eta apaltasuna erakutsiz. Eskerrik asko!

Azkenik, gure elkartasuna Catalunya herriarrei. Eskubide demokratikoak lortze bidean emaniko urratsak emaitza onak izan ditzala opa dizuegu. Inbidiaz ikusten dugu Euskal Herriak, demokraziarako bide horretan lortu duzuen elkartasuna.

Arnaldo Askatu! Politika Askatu! ©

### Erlea eta liztorra

Hirugarren urtez jarraian, badator martxoa, liztorraren kontra egiteko garaia; laster dator liztor tranpak jartzeko garaia. Baso teknikari eta erlezain naizen aldetik, izurriteetan espezialista, erreginak izango diren liztorrak harrapatzeko uea iritsi zait. Berriz ere, nire poltsikotik jarri behar dirua, liztorraren aurkako borrokan.

lazgo urtea erleentzat txarra izanik, nire ekintzailetasun proiektuak ez du diru gehiago ematen honetarako, ez dut biderik liztorraren aurka gure erlegetietan eta inguruetan lanean aritzeko (tranpak jarri, birjartzeak...). Urteak daramatzat nire bizilagunari (diputatuari) lan baldintzak eskatzen, proiektuaren lan ildoak aurkezten, titulazio egiaztagirari eta mota guztietako agiriarekin, baina orain, bat-batean, beste batzuk hasi dira formakuntzan! Ez al du berorrek proiektua ulertu? Publikoki zita jarri eta herrian azal dezaket. Luze hitz egin genezake.

Argi laga behar dut nire basogintza proiektua erleen kontserbazioan espezializatua dela eta ez dela soilik kabi batzuk kentzera mugatzen; guztiak kenduko dira merke,

modu eraginkorrean eta azkar. Horregatik, logika erabiltzea eskatu nahi diet arduradunei, neurriak ezartzeko orduan. Sufritzen ari denak, lana egiten duenak, kobra dezala eta lana bihotzez egin. Efizientzia, ekintzailetasunaren bultzada, biodibertsitatea, lan baldintzak, basogintza gestio berritzailea, I+G... landuz.

Bestalde, nire egoeraren aipamen txiki bat: oso baldintza deserosoak ditut, soldatarik ez, lan ugari, ordaingabezi egoerak... begira, gainera, batzuek *Facebook basogintza* n egiten didatena. Gestioa asko hobetu behar da, basoa bezalaxe.

Horregatik, dei bat publikoki jefeei eta herritarroi: liztor kabiak ikusten badituzue, deitu niri: 607885609. Norbaitek dirua ko-bratu behar badu, gu garela eta ez pinuzaleak. Alferrikako sasi-borrokan gabilitza, gauzak txarto eta berandu eginez.

Eskerrik asko, eta mesedez, landatu espezie melliferoak erlea eta ezitia maite badituzue behintzat.

Mila esker sinadura bilketan eskainitako babesagatik.

Gatwin sarea: <http://www.gatwin.com/?code=ES036784A>  
Kode hau erabiliz Interneteko nabigatzailetik sarea osatu eta dirua irabazi ahal izango du-gu. Animatu, doan da. Era berean, erlezaintza lagunduko duzue. Ikusi bideoa.

**Mikel Etxabe Jauregi** ☺

### **Pobreziaren kontra**

Behean sinatzen dugunok Elgoibarren gertatzen ari den gizarte hausturaren berri eman nahi dugu. Egoera oso larritzat jotzen dugu. Sei urteko krisia eta gero, prekaritatea eta pobrezia gero eta gehiago zabaltzen ari da gure artean. Familiak porrot ekonomikoa pairatzen ari gara. Eta porrot honen adierazlerik garbiena etxe-kaleratzeak dira.

Elgoibarren Stop Desahucios-ek urte batean 14 familia hartu ditu. Haietako bik duela hilabete asko galdu zuten etxearen jabetza, enkantean, eta noiz kaleratuko zain daude. Beste familia bat etxetik irten araziko du

Alokabidek. Eta hau izozmendiaren punta besterik ez da, familiak etsipenean jartzen direlako gizarte mugimenduekin harremanetan. Enkantean jarri diren etxebizitzak askoz ere gehiago dira.

Bestalde, jakin arazi nahi dugu etxetik kaleratzeko arriskuan daudenen profila aldatu egin dela urtebetean. Garai baten, enkantearen bezperan Stop Desahucios-ekin harremanetan jartzen zirenak etorkinak ziren batik bat; gaur egun demandatuak izateko bezperan daudenak hemen bertakoak dira, lanean zortetik izan ez duten langile autonomoak. Hau da, epaitegian bukatuko duten familien kopuruak gora egingo duela aurreikusten dugu.

Bukatzeo, esan, ekonomiak hobera egingo duela agintzen diguten arren, soldatak murriztuz doazela. Honek esan nahi du garai batean sinatu zituzten hipotekak ordaindu ezinda geldituko direla asko. Beraz, etxe-kaleratzeen arazoa luzerako da, eta larriagotuko egingo da, gainera, ezer egin ezean.

Zenbait kaleratze gelditzea lortu dugu Elgoibarren, borroka eta negoziazio luzeen ostean. Horregatik, Prekaritatearen Aurkako Taldeak eta Stop Desahucios Debabarrenak hemendik aurrera egingo ditugun mobilizazioetan parte hartzera deitzen zaitugu.

Etxe-kaleratzei aurre egitea posible delako. Pobreziari aurre egin diezaioketugulako. Bai, posible da.

### **Stop Desahucios eta Prekaritatearen Aurkako Taldea** ☺

#### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## Espainiako Bandera udaletxeko fatxada nagusian jartzera behartu du Udala Auzitegi Nagusiak

‘Geurea ikurriña’ lemapean ekitaldia antolatu dute EAJk eta EHBilduk martxoaren 7rako

**E**lgoibarko Udalak Espainiako Banderaren Legea ez zuela betetzen irizita salaketa jarri zuen Javi Nuñez PPko zinegotziak, eta Auzien Epaitegiak Espainiako bandera jartzera behartu zuen Udala. Erabaki horren aurka gaitzespen errekurtsioa jarri zuen Udalak EAeko Justizia Auzitegi Nagusian, baina ez zuten helegitea onartu. Hortaz, agindu hori betetzea erabaki zuen Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberriak 2012ko apirilean, eta Espainiako banderaz gain, Europakoa, Gipuzkoakoa, Elgoibarkoa eta ikurrina jarri zituzten Giza Eskubideen parkera ematen duen leiho batean. EAeko Auzitegi Nagusiak, baina, Espainiako bandera "ohorezko lekuan, ikusteko moduan" jartzeko agindu zien hainbat herriri, tartean Elgoibarko Udalari. Auzitegi Nagusiak, baina, leku hori ez dela Espainiako bandera jartzeko egokia ebatzi du, eta "ohorezko lekuan, ikusteko moduan" jartzeko agindu dio Elgoibarko Udalari. Bigarren epai hori ere betetzea erabaki du Elgoibarko Udalak, "gogoz kontra". Hala, Kalegoen Plazara ematen duen balkoira aldatu dute Espainiako bandera.

Epaia salatzeko, mozioa aurkeztu zuten EAJ eta EHBildu udal taldeek, eta mozioa onartu zuen Osoko Bilkurak EAJ eta EHBilduren aldeko botoekin, PSE-EEren abstentzioarekin eta PPko zinegotziaren aurkako botoarekin. Mozioak dioenez, elgoibartarren "gehiengoaren borondatearen aurka" doa Espainiako bandera Udalean zintzilikatzea; "inposizioa" da.



### ‘Geurea ikurriña’

*Geurea ikurriña* izeneko ekitaldi instituzionala egitea adostu dute EAJk eta EHBilduk, ikurriña omendu eta "elkarbizitzarako egin duen ekarpena" aitortzeko. Martxoaren 7an izango da, 19:00etan. Herritarrei ekitaldian parte hartzeko deia egin diete sustatzaileek.

## Peñafloridako kondearena izandako Urdaikoa etxea bota dute



San Bartolome 39an zegoen eraikina bota dute etxe berriak egiteko, eta Pello Arrieta historialariak jakinarazi digunez, eraikin horrek badu bere historia. Urdaikoa izena zeukan eraikinak, eta Azkoitiko Peñaflorida kondearena izan zen,

1795eko erroldak erakusten duenez. 1992an Arkeolanek egin zuen estudioan agerienez (*Estudio histórico del urbanismo de la villa de Elgoibar*), 1867an hartu zuen etxe horrek Urdaikoa izena. 1906an Justo Atristainek erosi zuen eraikina, eta gerora iritsi ziren Garagartzatarrak. Pello Arrietak emandako informazioaren arabera, Urdaikoa etxeak, Gabinekoak eta honek alboan duen jantzi-dendaren etxeak Kalebarrengo plazaren mendebaldeko aldea eratzen zuten, 1346an Markinako Hiribildu Nagusia (Villamayor de Marquina- Elgoibar) sortu zutenean. Goiko kalearen (Ermuaran edo San Bartolome) bukaerako etxea zen Urdaikoa.



## Izena **Bittor Alberdi 'Patxillo'**



Bittor Alberdi *Patxillo* Udal Musika Bandako kidea hil zen martitzenean, 51 urte zituela. Musikari aski ezaguna zen

herrian, eta gazte-gaztetatik musikari emanda bizi izan zen. Txomin Mujika bandako zuzendariak esandakoaren arabera, 1976an bandako kidea zen Patxillo, eta aurretik, Elgoibarko txistulari taldean ere jo izan zuen. Mauxitxa txarangaren sorreran jardun ez bazuen ere, hasierako etapan sartu zen txarangan. "Gizon langilea, umoretsua eta bandan sekula hutsik egiten ez zuena zen", esan du Txomin Mujikak. Eguaztenean egin zioten azken agurra San Bartolome parrokiaren senide eta lagunek, eta Udal Musika Bandak ere hartu zuen parte hileta elizkizunean. *Gernika* martxa funebrean jo zuten sarreran, eta *Agur Jaunak* abestia amaieran.

## Saria **Txankakua**



Txankakua merkatari elkarteak aste honetan banatu ditu Gabonetako zozketaren sariak. 1.800 euro zituzten banatzeko: 500 euroko bi erosketa-txeke eta eta 100 euroko zortzi. Saria jasotzeko epea bukatu zenean, baina, saridun batzuk agertu gabe zeuden oraindik, eta ondorioz, 800 euro banatu gabe gabe utzi dituzte (500 euroko sari bat eta 100 euroko hiru). Hauek izan dira irabazleak: Isabel Muramendiarazek 500 euroko erosketa txekea jaso du, eta ondorengoek 100 euroko txeke bana: Isabel Etxeberria, Perfe Rodriguez, Raquel Martinez, Myrian Barrutia eta Consuelo Mediavilla.

## **Aldi baterako egonaldiak zaharren egoitzetan**

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak jakinarazi du ireki direla Aste Santuan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko programak. Interesatuak martxoaren 14rako egin beharko dituzte eskaerak. Epez kanpo jasotzen diren eskabideak, libre dauden plazen arabera beteko dira. Udaleko Gizarte Ongizate Sailean eskuratu daiteke informazio gehiago.

## **Sargoateko iturria berreskuratzeko lanak martxoaren 1ean bukatuko dituzte**

Sargoateko iturria auzolanean berreskuratzeko ekimena jarri zuen martxan Morkaikok, eta martxoaren 1ean amaituko dituzte lan horiek. 8:00etan batuko dira IMHko aparkalekuan, eta kotxez egingo dute Sargoaterako bidea. Lanerako gogoz eta ilusioz dauden herritarrak gonbidatu dituzte antolatzaileek. Aurretik izena ematea eskatu dute mendi taldetik, lanerako materialaren eta jan-edanaren aurrikuspenak egin ahal izateko. Interesatuak [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzi dezakete, edo astelehen eta ostegunetan Errosario kaleko lokalean bertan eman dezakete izena, 19:00etatik 20:30era.

## **Gazte inauteriak antolatu dituzte Mendaron**

Mendaroko Gazte Asanbladak gazte inauteriak antolatu ditu martxoaren 1erako. 12:30ean poteoa egingo dute; ondoren, bazkaria eta bazkalosterako jolasak antolatu dituzte. 19:00etan Kamel DJak jarriko du musika gaztetxean. Antolatzaileek mozorrotuta joateko deia egin dute, eta gaiak ere jarri dituzte: haurtzaroko pertsonaiak, famatuak, atzerritarrak edo zirkua. Interesatuak Aitzbeltz tabernan eman beharko dute izena otsailaren 24a baino lehen.

# Agur mendizaleen gidariari

Zapatuan hil zen **Pako Iriondo Lizarralde** (Elgoibar, 1926), bizia mendiari eman dion elgoibartarra, eta martitzenean egin zituzten haren aldeko hileta elizkizunak. Mendizale amorratua, Elgoibarko Eup! Mendizale taldeko kidea izan zen gaztetan, eta handik Morkaiko mendizaleen elkartearen sortu zuten gero, 1943an. Euskal Mendizale Federazioko ohorezko presidentea, Espainiako Mendizale Federazioren lehendakariordea eta *Pyrenaica* aldizkariaren sustatzailea izan zen, besteak beste. Ibilbide luzea egin du mendiari lotuta, luzeegia bi orritara ekartzeko, eta, beharbada, bereak dira ibilbide hori laburtzeko berbarik egokienak. “Bizixa eman ditt mendixak”. Halaxe aitortu zion aldizkari honi, 2011ko martxoan emandako elkarrizketan.

Ainara Argoitia



Pasioa haizea bezalakoa da, mugitzeko beharrezkoa”. Mendia zuen pasio Pako Iriondok; mendia, bizitzarako hauspo. San Roke bailarako Tokieder etxean jaio zen, 1926ko urriaren 13an. Aita Arriaga auzoko Garaño baserrikoa zuen, eta ama, berriz, Agirrekoa, Azkue auzokoa. 13 urterekin laga zuen eskola eta Arriola y Cia-n hasi zen lanean, mandatar lanetan. Hantxe atera zuen titulua ere, Doitzale titulua. Gero, Estarta y Ecenarro tallerrean jardun zuen, erretiroa hartu arte. Piedad Madariaga bergararrarekin ezkondu eta alaba bat izan zuten, Idoia. Eta haiei ere kutsatu zien mendirako harra. Urte askoan ia egunero egiten zuten Pakok eta Piedadek etxetik Idotorbera arteko bidea, oinez. Eta hantxe, Idotorbeko gainean, dago 2010eko ekainaz geroztik, Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Mendizale Elkarteak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak Pakoren omenez jarri zuten oroigarria. Hunkigarria eta berezia izateko asmoz atondu zuten esker ona adierazteko omenaldi hura, eta, hala-beharrak, are hunkigarriagoa egin zuen, omenaldi aurretikoan hil zitzaizalako Pakori emaztea, Piedad, bere esanetan, eguneroko pausoan ezinbesteko izan zuen “makulua”.

Ez zen lehen aldia bizitzaren gozoa eta garratza aldi berean bizitzea tokatzen zitzaiona. Euskal Herriko Mendi Federazioko presidentetzan egin zituen hemezortzi urtean eta baita, gero, Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioko lehendakariorde izan zen garaian, nahi baino

gehiagotan tokatu zitzaion mendiko ezbeharren ostean aurpegia ematea; mendian heriotza topatu zutenen etxekoen eta lagunuen ondoan egotea, baina halakotan, heriotzean edo nahigabeen baino gehiago bizitzan pentsatzen zuen Pakok. Haiei guztiei mendiak eman zizkien momentu onetan. Aspaldian bazerabilen buruan kezka bat, hala ere, eta urteek emandako eskarmentutik, saiatzzen zen ingurukoak ohartarazten. “Ez daixala iñork pentsatu ikasi biharreko dana ikasitta daukanik, mendixa beti da gu baiño gehixago eta”. Ez zuen ulertzen mendia metrotan neurtu beharra, eta ez zuen ulertzen inguruko mendiak ezagutu gabe, mendi garaietara irteteko askori ikusten zien “egarri asebetezina”.

Mendia gozatzeko zela aldarrikatzen zuen hitza ematen zitzaion aldiro. “Erlojuari begira egitten dan dana da txarra”, esan izan zuen, mendiko kiroletako lehiakortasunaz galdetu zitzaionean. Lehenengo iritsi nahi hori ez zen ondo uztartzen Pakok mendizaleari aitortzen zitzaizkion baloreekin, ezta mendiaz gozatzeko zuen ikuskerarekin ere. “Mendixan, gauzarik ederrena alkarri laguntzia izan da beti”. Beti saiatu izan zen horretan. Berak esana da mendiko kontuei sekula ez ziela ezetzik esan, eta bere heriotzaren ostean, egunkari, agerkari digital eta sare sozialetan entzun eta irakurri diren mezu guztiek erakusten dute egindako lana eskertzen ziola jendeak. Zerbait izatekoan, gizon estimatua zen Pako Iriondo, mendizaleen artean.



## Futbolari lotutako kirol ibilbidea

CD Elgoibar taldeko atezain izan zen 1944-45 denboralditik 1951-52 denboraldira artekoetan. Soldaduska urtean, 1947-48 denboraldian, Melillako futbol taldeko atezaina izan zen. Espainiako Ligan hirugarren mailan jokatzen zuen orduan Melilla futbol taldeak. 1952-53 denboraldian, CD Elgoibarko entrenatzaile izendatu zuten. 1960-61 denboraldian, CD Elgoibarko bigarren entrenatzaile kargua hartu zuen. Garai hartan, Ricardo Suarez zen lehenengo entrenatzailea, eta hirugarren mailan jokatzen zuen Elgoibarrek. 1962-63 denboraldian, jubenilen taldearen ardura hartu zuen, eta Gipuzkoako txapeldun izan ziren.

## Mendiari lotutako kirol ibilbidea

- ♦ **1940:** Mendirako irteerak hasi zituen Elgoibarko Eup! mendizale taldekoekin eta Eibarko Klub Deportiboekin.
- ♦ **1943:** Morkaiko Mendizale Elkartea sortu zuten.
- ♦ **1953-59:** Morkaiko mendizale elkarteko presidentea.
- ♦ **1969-1971:** Euskal Mendizale Federazioaren kostaldeko eta mendi irteerarako ordezkaria.
- ♦ **1971tik 1976ko otsailaren 6ra:** Euskal Mendizale Federazioko presidentea.
- ♦ **1975:** Kirolaren Goi Kontseiluak urrezko domina eman zion, Espainiako Mendizale Federazioarekin egindako lankidetzaren inguruk.
- ♦ **1980-1983:** Morkaiko Mendizale Elkarteko gestorako kidea.
- ♦ **1986-2010:** Euskal Mendizale Federazioko presidentea.
- ♦ **1992-1995:** Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioko bigarren presidenteordea, Joan Garrigosen agintealdian.
- ♦ **1998:** Club Vasco de Camping-eko ohorezko bazkide izendatu zuten, apirilaren 26an.
- ♦ **2000:** Euskal Mendizale Elkarteko ohorezko presidente izendatu zuten, azaroaren 30ean Elgetan egin zuten ekitaldian.
- ♦ **2010-2012:** Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioko presidente Joan Garrigosen aholkularia.

## Andoitz Agirregomezkorta



### MORKAIKOKO PRESIDENTEA

Eskekerak emateko idazten dizut, Pako. Izan ere, Morkaikon sartu giñanetik gure aldamenian izan zera beti, eta hori ezin da diruarekin ordaindu. Deitu dizugun guztietan erakutsi diguzu laguntzeko edo aholkuak emateko borondata; zerbait antolatu dogun bakoitzian bat egin dozu gurekin. Guretzat ez dozu sekula ezetzik izan, eta guretzat ohore bat izan da zu gure aldamenian izatia, luxu bat. Lehen ere hamaika aldiz esan dizugun arren, eskerrik asko, Pako.

Norabide zuzena hartzeko iparrorratza izan zera guretzat. Eredu eta lagun. Eda-dian gure artian alde haundia egon arren, sekula ez dogu arazorik izan gure jardunian bat egiteko. Akordatzen zera, adibidez, duela bizpahiru urte Azaolan pasa

gendun egunarekin? Morkaikoren gaiñeko hausnarketa egittera joan giñan 40 lagun inguru, eta zuk ere gurekin pasa zendun eguna. Zeuk zabaldu zendun gogoeta-prozesua, eta, bestiak beste, aurrera egiteko giltzak talde-izaera eta lanerako kementa zirala esan ziguzun. Lana, lana eta lana, ez daguala bidian aurrera egiteko beste sekreturik. Serio jardun zendun Azaolako jardunian, bromak bazkalordurako lagata. Badakitt zuretzat Morkaiko berezixa izan dala beti, eta aintzat hartzeko hamaika gomendio gure barruan gordeta jaitzi giñan Azaolatik.

Garrantzixa berezixa ematen diot Finalista Egundian egiten zendunari, Pako. Egun hori berezixa da Elgoibarko mendizalioztat, eta zuretzat ere hala izan da. Egun horretan ezin zendun huts egin. Gure umiek ere emozio berezixarekin hartzen zittuzten haien lepuetan zuk emandako domiñak. "Domiñak jartzen dittuan gizona!", moduan ere ezagutzen zaittu umeren batek. Haur hórrek ere ez zaittuzte sekula ahaztuko, eta haunditzen diranian jakingo debe benetan zein izan zan domiñak ematen ziuena gizona. Eta konturatuko dira zergaittik ziñan zu dominak jartzen zittuana. Eta egongo da haren inguruan zure ba-

liuak defendatzen dittuanik: lana ondo egiteari ziñon maittasuna; gauzak hobetzen juteko zendun pasia; eta siñisten zendun hori lortu arte aurrera egiteko zendun kementa.

Azken urtietan, Morkaikoko presidentea naizen partetik, dezente mobittu naiz hara eta hona. Jende askorekin jardun dot mendixaren gaiñan berbetan, eta elgoibartarra nitzala esaten niuenian beti urte-tzen zan zure izena: "Pako Iriondoren herrikoa, orduan?". Danek egin diabe berba ondo zure gaiñan; iñori ez diot berba txar bat entzun. Mendiko jendiaren errespetua eta miresmena irabazi dozu, Pako. Hainbeste urtian mendizaletasunaren alde egin dozun lanaren ordaiña baiño ez da. Izugarri egin dozu mendixaren alde, eta jendiak estimatzen dizu egindakoa. Mendizalioik maitte zaittugu.

Ez zara sekula geldi egon, Pako. Beti izan dozu zerbait egiteko. Baiña zuri ere ere heldu jatzu merezittako atsedena hartzeko ordua. Beti gustatu izan jatzu mendixan gora juatia, eta orainguan oso gora juan zara. Zauden tokixan zaudela, orain arte moduan, seguru nago mendizaleok segittu biharreko bidia erakusten segittuko dozula. Kasu egingo dizugu, Pako.



Idoia Iriondo, Pako Iriondoren alaba, aitaren errautsak zituen kaxa eskuan duela, eta atzetik segizioa. Morkaikok ohorezko pasiloa egin zien.

Jendetza handia batu zen martitzenean Elgoibarren, Pako Iriondori azken agurra ematera. Pako Iriondoren beraren eskariz, Jose Inazio Sarasua Elgoibarko Udal Txistulari Taldeko kideak prestatu zituen hileta elizkizunaren atarikoak, Elgoibarko Udalaren eta Morkaiko Mendizale Elkartekoekin elkarlanean. Sarasuak harreman berezia zuen Iriondorekin, hamabost urtez Pakok Elgoibarko Udal Txistularien lokalean izan zuelako bulegoa, eta Sarasua bera izan zuelako idazkari. Udaletxeko pleno aretoan egin zieten harrera kanpotik etorritako agintari eta mendizaleei. Hantxe ziren, besteak beste, Espainiako Mendizale Federazioko presidente Joan Garrigos eta Jordi Pons presidenteordea eta Paco Dura Perleta Valentziako Mendi Federazioko presidentea. Joseba Ugalde eta Antxon Burcio Euskal Mendizale Federazioko presidentea eta zuzendari teknikoa ere batu ziren udaletxera. Denek izan zuten gogoan urteetan mendizaletasunaren ikur izan den elgoibartarra.

Udaletxetik, elkarrekin egin zuten San Bartolome parrokiarainoko bidea, Sarasua aurretik zutela. *Mendizaleak* martxa jo zuen Jose Inazio Sarasuak, eta eliza atarian, pioletak eta mendiko makilak goratuta zituztela, ohorezko pasiloa osatu zuten Morkaikoko lagunek. Hileta elizkizunean, mendiari lotutako ezagun ugarik parte hartu zuten. Hantxe ziren, besteak beste, Alberto Iñurrategi, Josu Iztueta eta Juanjo San Sebastian.





## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Beti izango zaitugu gogoan*

2014ko otsailaren 18an hil zen,  
44 urte zituela.



## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Hainbeste dira zu gogorarazten didaten lekuak,  
hainbeste dira gogoratu beharreko berbak,  
zuk lagatako hutsuneak sekula ez duela disdira egiteari utziko.  
Zure irribarrearen samurtasunagatik  
eta zure besarkadaren beroagatik.  
Beti egongo zara gurekin.*

2014ko otsailaren 18an hil zen,  
44 urte zituela.

Marian



## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

*Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,  
baina betirako egongo zara gure oroimenean.*

Txarriduna familia



ESKERTZA

## PAKO IRIONDO LIZARRALDE

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 87 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# IGOR ARENAZA

KIROL KOORDINATZAILEA



“Euskara derrigortuta egon beharko litzateke kirolean”

**Kirolaz hazi eta hezi** hitzaldia eskaini zuen atzo Kultur Etxean Igor Arenaza futbolari ohiak. **Eskua** (Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz Aretxabaletan) programa jarri zuen abian Aretxabaletan, kirolaren bidez umeekin beste hainbat giza balore lantzeko. Besteak beste, taldelana, errespetua, euskara edota kiroltasuna lantzen dituzte umeekin. Horretarako, entrenatzaile, kirol-koordinatzaile eta gurasoen papera ezinbestekoa da, eta haientzako hitzaldia eskaini zuen atzo. Futbolak eta kirolak, oro har, haurren heziketan duen garrantziaz hitz egin zuen Arenazak, besteak beste.

‘Kirolaz hazi eta hezi’ hitzaldia eskaini duzu, ‘Eskua’ programaren barruan. Zertan datza ‘Eskua’ programa?

Aretxabaleta kirol elkartean sortu genuen Eskua programa: Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz Aretxabaletan. Kirolaren bitartez beste giza balore batzuk lantzea da egitasmoaren helburua, umearen heziketan garrantzitsuak diren baloreak. Besteak beste, adimen emozionala, euskara, ingurumena, taldelana, errespetua... laz jarri genuen martxan egitasmoa Debagoienean, Bergara, Arrasate eta

Aretxabaletako futbol eskolekin, eta oso emaitza onak lortu genituen. Umeak euren artean ezagutzeko aukera eskaintzen du egitasmoak, eta etorkizunerako harreman sendoak lortzen dituzte euren artean. Orain, Debabarrenera zabalduko dugu proiektua. Elgoibar, Deba eta Mutrikuko futbol eskolez gain, Eskola Kiroleko hezitzaile eta monitorek ere hartzen dute parte egitasmoan.

**Zein metodologia erabiltzen duzue?**

Entrenatzaileak formatzen ditugu lehendabizi, eta gurasoentzako hitzaldi eta saio bere-

ziak ere eskaintzen ditugu. Klubek ere hartzen dute parte, eta umeeke ere, jakina. Gurasoen papera ere oso garrantzitsua da, umeak kirolarekiko izan behar duen jarreran eragin handia dutelako. Umeak oso motibatuta etortzen dira kirolera, eta alor hori aprobetxatu behar dugu gainerako baloreak lantzeko. Ikastetxeekin eta gurasoekin elkarlanean, umearekin modu integratuz lan egiten dugu kirolaren bidez. Kontuan izaten dugu umea pozik dagoen, haserre, triste edo nekatuta. Hori guztia kontuan hartzen dugu, eta egoe-

ra horiek guztiak lantzen ditugu kirola eginez. **Zein onura eskaintzen dizkio kirolak umeari?** Kirola osasuntsua da umearentzat, zentzu guztietan. Kirol bat egiten duen unetik, diziplina baten barruan sartzen da umea. Arau batzuk ulertu eta bete behar ditu kirol jardunean, eta horrek lagunduko dio bizitzako arauak errespetatzen. Horrez gain, etika eta jarrera ere lantzen da, eta ama hizkuntza ere bai. Euskarari aparteko garrantzia ematen diogu. Bestalde, ausardia ere lantzen da: arerio bat dagoelako aurrean. Bizitzako egunerokotasunean aplikatzen diren baloreak dira.

## “Entrenatzaile hezitzailearen figura sustatu behar da”

**Arerioa aipatu duzu. Ez al zaizu iruditzen gaur egun arerioari irabazi nahiak beste baloreek baino inportantzia handiagoa hartzen duela kirolean? Hau da, kirola konpetentziarik gabe ulertu daiteke gaur egun?**

Ikuspegi desberdinak daude: batetik, entrenatzaile hezitzailea dago, eta bestetik, entrenatzaile irabazi zalea. Klubak erabaki behar du zer nahi duen, baina nire ustez, emaitzetara mugatu nahi badu soilik, frustazio handia sortu dezakete umeengan, beti ez direlako emaitza onak lortzen. Entrenatzaile hezitzailearen figura sustatu behar da. 8, 9, 10 edo 11 urte inguruko umeekin lan egiten dugu, eta adin horretan emaitzak ez dauka horrenbesteko garrantziarik. Batzuei kezka sortzen zaie, eta uste dute umeari txikitatik ez bazaio erakusten irabazten, ez duela bere burua gainditzen ikasiko. Baina nik uste dut ume-umetatik konpetitibo egiten baditugu, 16-18 urtera iristerako konpetitzaez aspertuta egongo direla. Emaitza garrantzitsua da jakina, eta kirol bat egiten dugun bakoitzean beste taldeari irabazteko ahalegina egin behar da, norberaren gaitasunak lantzeko, baina jarrera positibo batean oinarrituta. Emaitza txarra izan arren, jarrera positiboa erakutsi daiteke, eta alderantziz; hau da, partida

irabazita ere, baliteke beste baloreak ez lantzea; kontrako taldea gaizki tratatu izana, edo errespetuz ez jokatu izana... Emaitzaz harago, mila gauza landu daitezke kirolean.

**Entrenatzaile batek orduan zer egin behar du taldekide guztiak jokatzearren alde ala onek jokatzearren alde?**

Nire ustez denek parte hartzeak dauka garrantzia. Alebinetatik aurrera mugatuta dago jokalarien kopurua taldeko, baina muga horien barruan jokatzeko gutxieneko denborak finkatu beharko lirarteke. Umetan denek jokatu behar dute. Parte hartzeak umearen autoestimua lantzen ere laguntzen du, eta adin horretan oso garrantzitsua izaten da. Umea baldin bada garrantzitsuena, bera jarri behar dugu erdigunean.

**Errespetua aipatu duzu, baina askok ez dute errespetuz jokatzeko arbitroaren edo aurkakoaren aurrean. Horrek nola eragiten die umei?**

Zorionez, gauzak aldatzen ari dira, eta zentzu horretan aurrerapauso handiak eman ditugu. Gizartean gaur egun ez daude ondo ikusita oihuka ibiltzen diren horiek. Grazioso izate-tik gaizki ikusita egotera pasatu dira horiek. Hala ere, lan handia dago egiteko oraindik. Horregatik eskaintzen ditugu *Hazi eta hezi* izeneko hitzaldiak. Gurasoentzako hitzaldiak dira, eta jarrera horiek zuzentzera bideratuta daude. Klubaren, entrenatzailearen eta gurasoen prespektiba berbera izan behar da, eta hori transmititu behar zaio umeari. Emaitzetatik haratago joan behar gara.

**Euskara ere lantzen duzue ‘Eskua’ egitasmoaren barruan. Kirola euskaraz egitea posible da?**

Bai, nire ustez derrigortuta egon beharko litzateke euskara kirolean. Kanpotik etortzen direnek euskara ikasten dute, eta bertakok ez dugu egiten! Egitasmoa martxan jarri genuenean barne gogoeta bat egin genuen gai honen inguruan, eta konturatu ginen euskara maila apala zegoela gure klubean. Hori ikusita, euskarari garrantzia ematea erabaki genuen. Kanpotar bat etortzen bada, badaude hari gauzak esplikatzeko mila modu, eta seguru ulertuko dituela, baina euskaraz dakitenekin behintzat, euskaraz egin behar da. Elgoibarren ez dakit zein den egoera, baina Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruan umeak oso erdaldun egin dira. Gero itzultzen dira euskarara, baina

adin batean gaztelarrera jotzen dute. Oso garrantzitsua da umetatik euskararen balorea transmititzea. Entrenatzaile euskaldunak eta prestatuak lortzen saiatzen gara, gure egitasmoa aurrera eramateko. Jende gaztea eta goiko taldeetan jokatzeko edo lanean dabiltzanak hartzen ahalegintzen gara, umeen erreferente diren gazteak izatea garrantzitsua delako. Erreferente horiek euskaraz hitz egiten entzutea garrantzitsua da umeen hizkuntza ohiturak lantzeko.

**Zure futbolari ibilbidean posible izan zenuen euskaraz lan egitea?**

Aretxabaletan hasi nintzen futboleant, eta 16 urterekin joan nintzen Athletic-era. Ez nekien gaztelaniaz, eta Bilbo aldean gaizki pasatu nuen hasieran. Gero Eibarren euskaraz egiten genuen, Eibar talde euskalduna zen, eta gaur egun ere hala izaten jarraitzen duela esango nuke. Gero, Espainiako futbol taldeetan jokatzeko jardun nuen, eta haiek gaztelaniaz funtzionatzen zuten, baina beti egoten zen inguruan euskaldunen bat eta izaten genuen euskaraz egiteko aukera.

## “Emaitzetatik haratago mila gauza landu daitezke kirolean”

**Generoari dagokionean, bistan da kirolean ere badagoela zer hobetua. Zer diozu?**

Pausoak ematen ari gara, pauso txikiak baina trinkoak. Emakumeek futboleant, eta oro har, kirolean euren esparrua edukitzea behar dute. Balore guztiak, eta generoarena ere bai, umetatik landu behar dira. 18 urterekin gazte bati drogomenpekotasunaz hitz egiteak ez du balio, beranduegi da, eta gainerako baloreekin gauza bera gertatzen da. Txikienekin egin behar da lan, oso emozionatuta etortzen dira kirolera eta erakusten zaie guztia hartzen dute. Kirol koordinatzaile eta entrenatzaileok erantzukizun handia daukagu.

# Hitz eskean, eskutik helduta

Erabakitzeko eskubidearen alde argazkia ateratzera deitu zuen barixakurako Elgoibarko Gure Esku Dago taldeak, ekainaren 8an Durangotik Iruñeara egin nahi den giza kateari lehen babesa emateko. Askotariko jendea batu nahi du ekimenak, adinean eta pentsaeran anitzak, etorkizuna “positiboan” eraiki nahi duten herritarrak, eta dagoeneko dozenaka dira babesa agertu dioten elgoibartarrak. Durangotik Iruñeara arteko bidea eskuz esku osatzeko –123 kilometro–, gutxienez 50.000 bat lagun beharko direla aurreikusitako dute, eta elgoibartarrei eta mendarorrei Bergara eta Antzuola arteko zatia betetzea egokitu zaie ([www.gureeskudago.net](http://www.gureeskudago.net)). Ordurako motorrak berotzeko, Elgoibarko taldeak hainbat ekintza antolatu ditu datozen asteetarako. Hasteko, mahai-informatiboak jarriko dituzte bihar, Kalegoen plazan.



Ainara Argoitia

Gure esku dago ekimenarekin bat egin duen elgoi...

Nazioa gara, erabakitzeko eskubidea dugu, eta herritarron garaia da. Oinarrian, horixe da *Gure esku dago* egitasmoak aldarrikatzen duena. 2013ko ekainaren 8an hasi zen dena gorpuzten, Goierrin, eta ordutik hamaika batzorde sortu dira Euskal Herri osoan, “jendartean dagoen beharrari abagunea eman eta erabakitzeko eskubidearen alde indarrak metatzeko”. Elkarlanean urrats berri eta sendoak egiteko unea dela jaso dute, eta “ziklo berri eta ilusionagarria” zabaltzeko giltza herritarrek dutela aldarrikatu. Herritarrak dira protagonista, eta ekimen honekin bat egin duten hiru elgoibartarri eman diegu guk ahotsa: Asier Iturriagaetxebarria, Olatz Albarran eta Nagore Sanz.

“Erabakitzeko eskubidea gure herriarentzat zer nahi dugun adierazteko aukera da. Ez dugu aparteko ezer eskatzen. Oinarriko giza eskubidea da, eta berez, edozein herritarrek, demokratia sentitzen den edonork, bat egin beharko luke eskaera honekin”, adierazi du Asier Iturriagaetxebarriak (Abadiño, 1975). Bat datoz Olatz Albarran (Elgoibar, 1978) eta Nagore Sanz ere (Arrasate, 1976). Ariketa politikoa baino gehiago, ariketa demokratikoa dela dio Nagorek eta kontua ez dela independentziaren edo beste edozein helburu politikoren alde abertzaleak batzea, baizik eta herritar guztiei, izan abertzale edo ez, hitza aitortzea. “Gero izango gara nahi duguna, gaur inork ez dakielako herri honek zer nahi duen. Gaur dena da espekulazioa. Herritari zer nahi duen esateko aukera eman behar zaio. Proiektuak ez du

inongo ikur politikorekin loturarik”. Hori baino ez da, eta hori dena da.

Ilusioz dira hirurak, ekiteko eta eragiteko gertu. Aurrera egin nahi bada, ezinbesteko ikusten dute norbanakoak batzea, aldaketa etorriko bada, herritarren bultzadaz etorriko dela uste dutelako. “Urte askoan egon gara isilik. Urte askoan egon gara haserre, eta elkarren aurka egiten, eta bada ordua nork bere iritzia eman eta elkarrekin lanean hasteko. Ahaztu ditzagun koloreak, eta alderdi politikoei esaten dutenera lotu beharrak. Egin dezagun alderantziz: guk erabaki eta haiek bete”, bota du Olatzek. Besteek egingo dutenaren zain egon beharrean, besteek emango dutenaren zain egon beharrean, “bila” irten behar dela uste dute, lau urtean behin botoa ematea ez delako nahikoa. “Ezin delako nahikoa izan”, nabarmendu du Asierrek. “Herria da motorra”, gehitu du Nagorek. Garbi dute erabakitzeko eskubidearen gaia agenda politikokoan sartzera behartu behar direla politikariak, eta goitik behar barik, behetik gorako ekimena dela hau.

Aldaketa egarriz daude hirurak, eta itxaropen handia dute jarrita *Gure esku dago* ekimenean. “Gizartea beti joan da alderdi politikoen aurretik, hamarkadak aurretik. Ez da erraza izango, baina bide zuzena hartu dugu”, dio horren harira Asierrek. Nolanahi ere, gizartearen zati handi bat “lozorroan” ikusten du oraindik, eta ikusten du haiek aktibatu beharra: “Eta ez erabakitzeko eskubidearen gaian bakarrik —gehitu du—. Faktore edo arrazoi askorengatik, gizartea beste gauza batzue-

“Ziklo berri eta ilusionagarria” zabaltzeko giltza herritarrak direla aldarrikatu dute



Artur talde batek argazkia atera zuen barixakuan, San Frantzisko iturri aurrean.

tara dago, eta nola ez dakit, baina aktibatu premia badago”. Sinistuta claude, baina, ekimen honek lortuko duela. Irtzi publikoaren zati handi bat, gehiengo ez bada, erabakitzeko eskubidearen alde dagoela uste dute, eta beste sasoi batzuekin alderatuz, elkarlanean aritzeko baldintza hobeak eta giro aproposagoa ikusten dute orain. “Beste patxada bat dago”, esan du Olatzek, ETAre indarkeriaren amaierari erreferentzia eginez. “Lehen, iruditzen zitzaigun ezingo genuela sekula beste batzuen mailan egon, hemen bageneukalako gatazka armatuaren karga, baina hori amaitu da, eta European indarra hartzen ari den mugimendu hau aprobeixatu behar dugu orain”.

“Ezberdinekin” lan egiteko baldintzez ari garela, heldutasuna berba aipatu du Asierrek. Heldutasun handiagoa ikusten dio gaurko gizarteari. Aro “ilusionagarriagoak” egon direla uste du, Lizarra-Garazi akordio garaia, besteak beste, baina gizartea “helduagoa” ikusten du orain. “Denok dakigu nondik gatozen eta zenbat denboran ibili garen ibili garen moduan.

Desilusio handiak hartu ditugu, eta ikasi dugu”. Horren harira, urtarrean Bilbon egindako manifestazioa aipatu du; Espainiako Auzitegi Nazionalak Tantz Tantz antolatatu zuen manifestazioa debekatu ostean, Tantz Tanta-k berak deialdia bertan behera laga eta EAJK, Sortuk, Aralarek, EAK, Alternatibak, Geroa Baik, ELAK eta LABek egindako manifestazio deialdi bateratua eta herritarrek emandako erantzun “eredugarria”. “Ikaragarria izan zen debekuaren ostean nola erreazionatu

zen eta ikustekoa izan zen manifestazioa bera ere nola joan zen. Herri honek sekulako erakustaldia eman zuen”, zehaztu du.

## Begiak Katalunian

Nahi edo ez, Kataluniara joaten zaie begia hirurei. Jakin badakite Euskal Herria eta Katalunia bi herri direla eta desberdintasun asko dituztela, dela iragana, historia edo gaur egungo errealitate soziologikoa, baina konparazioak saihestezinak dira. Katalunian herri mugimendutik sortu eta hazi dena ikaragarria dela diote aho batez, eta eredugarri ere ikusten dute. Are, inbidia puntu batekin jarraitzen dute han gertatzen ari dena. Hori bai, garbi dute han ere ez dela kosta bakoa izan. Artur Mas Kataluniako Gobernuako presidentek autodeterminazio erreferendumera deitu du azaroaren 9rako, baina hori ere herriak bultzatu duela nabarmendu du Asierrek. Herriak bideratu du Artur Mas norabide horretara, behartu egin dute kontsulta ezartzera”. Eta azaroaren 9ra begira,

asko dira orain artean egin dituzten ekimenak. Ikusgarriena, beharbada, irailaren 11n, Diada egunez, egin zuten *Via Catalana cap a la independència* (Bide katalana independentziara) ekimena, ANC Kataluniako Biltzar Nazionalak antolatutako giza katea. Katalunia osoa zeharkatu zuen giza kateak, iparraldetik hegoaldera, Pertusetik Alcanarrera, eta tarte horretan, 86 herri eta 480 kilometroko tartea bete zuten partehartzaileek, eskutik helduta —Generalitateko Barne

**Askotariko jendea  
batu nahi dute, herriari  
zer nahi duen galdetzearen  
alde dagoen oro**



Olatz Albarran

“Ahaztu ditzagun koloreak, eta alderdi politikoek esaten dutenera lotu beharrak”



Asier Iturriagaetxebarria

“Ez dugu aparteko ezer eskatzen. Demokrata sentitzen den edonork babestu beharko luke”



Nagore Sanz

“Zer nahi duen esateko aukera eman behar zaio herriari. Proiektuak ez du ikur politikorik”

Sailaren arabera, 1.600.000 lagunek parte hartu zuten—. “Ikaragarria izan zen”, aitortu du Nagorek. “Itzela”, dio Asierrek.

Katalunia eta Eskozia ikusten ditu eredutzat Asierrek. Gu bezalako nazioak dira, baina Eskoziara begira jarrita, ezberdintasunik ikusten du gurekin edo Kataluniarekin alderatuz gero. Erresuma Batuak erreferenduma egiten laga dio Eskoziari [irailaren 18an egingo dute]. Menpeko herrialdearen eta estatuaren arteko adostasuna egon da. Kataluniaren eta gure kasuan, ez dago estatuaren adostasunik. “Londresen, itxuraz, demokratek dira Gobernuan daudenak. Hemen ez dago halakorik. Berdin da Euskal Herria, Katalunia, Galizia, Andaluzia edo beste edozein herri izan. Zergatik ukatzen duten erabakitze eskubidea? Denok dauzkagu gure susmoak”, bota du. Espainiako Gobernuako agintariek eta Europakoek esandakoak ekarri ditu gogora, eta badu erantzunik erabakitze eskubidea kontu zaharkitua dela esanez ari direnentzako. “Europa osatzen duten estatuaren zati handi bat azkeneko hogeitortu urtean sortutako estatuak osatzen dute: Sobietar Batasunetik banandutakoak, Balkanetako herriak, Letonia, Lituania... eta Europatik kanpora ere baditugu adibideak. Katalunia independen-

te batek ez duela Europar lekuri? Eta Kataluniarik eta Euskal Herriarik gabeko Espainiak bai?”.

### Ekaineko giza katerako berotzen

Durango eta Iruñea batuko dituen giza katerako 50.000 bat lagun beharko direla aurreikusi dute, eta *Gure esku dago*-k badaki ez dela zeregin makala horrenbeste pertsona biltzea. Horregatik, lanean dihardute. Motorrak berotzen joateko hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibar-ko batzordeak ere. Bihar, otsailaren 22an, informazio-mahaiak jarriko dituzte Kalegoen plazan, 17:00etatik aurrera, eta martxoaren 6rako antolatu dute hurrengo batzarra: Kultur Etxean, 19:30ean. Biharamunean, martxoaren 7an, kalera irtengo dira berriro informazioa banatzera, eta martxoaren 13rako, *Gazta zati bat* dokumentalaren emanaldia antolatu dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan.

Giza kateak ez ditu Euskal Herriko herri guztiak zeharkatuko, eta horregatik, eskualde bakoitzari ibilbidearen puntu zehatz batzuk egokituko zaizkio, giza katea osatzen dela ziurtatze aldera. Debabarrenako herriei Bergara eta Antzuola arteko zati bat betetzea egokitu zaie.



Ekainaren 8an egingo den ibilbidea.



## ‘Hegoak ebaki banizkio’: Maalako parkea estaltzeko lehiaketa irabazi duen aurreproiektua

Josu Gabilondo arkitektoaren lana aukeratu du Udalak Maalako parkea estaltzeko

**H**egoak ebaki banizkio izeneko aurreproiektuak irabazi du Maalako estalpea aukeratzeko Udalak antolatuta duen ideia lehiaketa. Josu Gabilondo arkitekto elgoibartarra da proiektu irabazlearen egilea eta, hortaz, berak izango du obraren behin betiko proiektua idazteko eta lanak zuzentzeko ardura. Udal arduradunek jakinarazitakoaren arabera, “lehia estua” egon da, baina hala ere, Udaleko teknikari eta ordezkari osatutako epaimahaiak “aho batez” aukeratu du proiektu irabazlea. Herritarren bozketan hirugarren geratu zen proiektu hau, baina epaimahaiakideentzat “erregularrena” izan zen. Ingurura nola egokitzen den, egitura mantentzeak zer kostu izango duen, gaur egun parkeari ematen zaizkion erabileretara nola egokitzen den, prezioa eta argitasuna, hartu zituzten kontuan, besteak beste.

Josu Gabilondok Maalako gunearen izaera hartu du kontuan proiektua diseinatzeko. Kalegoen plaza gunea formal edo instituzionala da, eta Maalak gunea horri kontrapuntua jartzen dio bere ustez: “Informala eta inkonformista da Maala, eta estalpearen geometriarekin islatu dut hori”. Horrez gain, klimari ere garrantzia berezia eskaini dio. Hemengo klima oso aldakorra denez, egurrezko lama batzuk erabiliko ditu, udan itzal partziala eta neguan argitasuna lortzeko. Alboetako itxiturek haizeaz eta euriaz babestuko dituzte erabiltzaileak. Egitura altzairuzkoa da, teilatua zehar-argia ematen duen kristalezkoa eta gainean egur argi koloreko lamak. Ibai aldetik haize hotzagoa sartzen denez parkera, alde horretatik itxiagoa izango da, kaleko aldetik baino.

Azkenik, Maalaren erabilera bera ere zaindu du Gabilondok. Haur parkea dago batetik, eta eszenarioa eta parkea bestetik. Bi gunek horiek estalpearen altuerarekin bereiztuko ditu: “Eszenarioaren gunea altuagoa izango da, eta egurrak akustika aldetik aukera ona eskainiko du kontzertuetarako”.

Josu Gabilondo “pozik” dago sari honekin, eta bere ustez, Elgoibarrek “asko” irabaziko du gunea estali batekin. Orain arte bigarren eta hirugarren sari bat eskuratu izan ditu, baina hau da berarentzako sari “potoloena”. Gizaburuagan udaletxea egiteko lehiaketan bigarren geratu zen, eta Eibarko babes ofizialeko etxeak egiteko lehiaketan hirugarren lekuan geratu zen. Maalako estalpearekin bere proiektua gauzatzeko aukera izango du.

Maala estaltzeko proiektuak 300.000 euroko arrerontua izango du, eta Udal arduradunen arabera, udarako prest egongo da.



Maalako parkea estaliko duen proiektuaren irudia.



## Larretxea eta Etxeberria sailkatu dira urrezko aizkolarien finalerako

Mendaron jokatu zuten finalerdia joan zen domekan



Urrerzko aizkolarien Eusko Label binakako aizkora txapelketako finalerdia jokatu zuten domekan Mendaron, eta maila gorenean aritzen diren lau aizkolarik hartu zuten parte: Iñaki Azurmendik eta Unai Otañok batetik, eta Donato Larretxeak eta Felix Etxeberriak, bestetik. Sei modalitatetan 30 enbor ebagi zituzten lau aizkolariek, eta Donato Larretxea eta Felix Etxeberria nagusitu ziren. Garaipen horrekin finalerako sailkatzea lortu zuen bikote nafarrak. Martxoaren 30ean jokatuko da finala Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Aurkariak ezagutzeko bigarren finalerdiko emaitzen zain egon beharko dute Mendaroko irabazleek. Otsailaren 23an jokatuko da bigarren finalerdia Oñatin. Atutxa II eta Ugaitz Mugertza II Jose Mari Olasagasti eta Kañamares III-aren aurka arituko dira.

## Arnoatera korrika igoera egingo dute Mendaron martxoaren 1ean, Aingeru Guardako jaien barruan



Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte Mendaron datorren asteburuan, eta egitarauaren barruan, Arnoateko Igoera antolatuko dute martxoaren 1erako. 11:30ean irtengo dira korrikariak Plaza auzotik, eta 500 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute, 4,5 kilometroko ibilbidean. Izene-matea egunean bertan egin daiteke, lasterketa hasi aurretik. Parte hartzea doakoa izango da. Lasterketaren ondoren hamaiketako banatuko diete partaide guztiei.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 3 – Cultural Durango 1 (3. maila)  
Elgoibar 0 – Irintxa 1 (Erreg.)  
Arratia 3 – Elgoibar 1 (Neskak)  
Urola 0 – Elgoibar 1 (Jub. A)  
Elgoibar 4 – Anaïtasuna 1 (Kad. A)  
Ikasberri 1 – Elgoibar 0 (Kad. B)  
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 0 (Inf.)  
Elgoibar 1 – Arrasate 1 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 1 – Aretxabaleta 5 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

Lagunak 12 – Ziotza 22 (1. mailako nag.)  
Soraluze 22 – Lagunak 17 (3. mailako kad.)

#### Pala

Usurbil 12 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

King-Kong Elg. 8 – Zarautz 3 (Jub.)

### ESKUBALOA

Romo 26 – Alcorta Elg. 28 (Sen. mut.)  
Dosa BM 25 – Lauko Elg. 57 (Sen. nesk.)  
Gabaz Elg. 24 – Ordizia 24 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 29 – Usurbil 17 (Jub. mut.)  
Aloña Mendi 10 – Astigarraga Elg. 31 (Jub. nesk.)  
Txariduna Elg. 19 – Ereintza 31 (Inf. mut.)  
Aiala 26 – Murgil Elg. 17 (Kad. nesk.)  
Aloña Mendi 25 – Bankoa Elg. 19 (Inf. mut.)  
Aiala 23 – Ikus Elg. 25 (Kad. nesk.)  
Eibar 16 – Sanlo Elg. 19 (Aleb. nesk.)

## AGENDA

### SASKIBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 22

16:00 Viento Sur Elg. – Dolphins (Sen. mut.)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 22

12:30 Elgoibar – Zestoa (Kad. B)

16:30 Elgoibar – Mondragon (Jub.)

Domeka, 23

12:30 Elgoibar – Euskalduna (Inf.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 22

11:30 Tecnifuelle Elg. – Kukullaga (Kad. nesk.)

13:00 Astigarraga Elg. – Kukullaga (Jub. nesk.)

18:00 Murgil Elg. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)

19:45 Alcorta Elg. – B.M. Corrales (Sen. mut.)

Domeka, 23

9:30 Elgoibar – Urnieta (Aleb. mut.)

10:20 Elgoibar – Hondarribi (Aleb. mut.)

11:30 Bankoa Elg. – Hondarribi (Inf. mut.)

12:45 Ikus Elg. – Egia (Inf. nesk.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 21

21:30 Lagunak – Allerru (2. mailako jub.)

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **636 448 696**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **680 121 252**
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut. ☎ **610 658 914**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Gauetz ere bai. ☎ **608 886 701**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **649 626 975**
- Emakumea eskaintzen da gauetz lan egiteko. Esperientziaduna. ☎ **682 255 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da astelehenetik ostiralera nagusiak zaintzeko. ☎ **699 820 299**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **620 258 708**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Gauetz ere lan egiteko prest. ☎ **943 254 087 / 672 966 528**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka, asteburuetan... Esperientziaduna. ☎ **626 914 904**
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile ikasketekin. ☎ **646 931 162**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **616 465 940**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. Esperientzia dut, eta paperak legez. ☎ **602 384 491**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **638 863 019**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Esperientzia dut geriatrian, umeak zaintzen, zerbitzari edo dendari lanetan. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko zein sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **697 735 046**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **669 311 385**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **653 156 403**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Orduka edo interna. ☎ **631 101 186**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Orduka edo interna. ☎ **631 101 975**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **654 304 337**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. ☎ **631 572 831**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **616 457 254**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **632 516 861**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **638 205 490**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **642 609 678**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. ☎ **659 813 248**

### ESKAITZA

- Baserrian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **666 557 538**
- Tabernari emakumezkoa behar da Elgoibarko taberna batean asteburuetan lan egiteko. Bidalai CVA, argazkiarekin. [kamarera@hotmail.com](mailto:kamarera@hotmail.com)

### ETXEBIZITZAK

- Emakumea pisu bila. Elgoibar erdigunean, ahal dela. ☎ **636 581 194**
- Pisua hartuko nuka alokairuan, konpartitzeko. ☎ **602 490 595**
- Etxea alokatzen dut Urazandian. ☎ **660 522 587**

### LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan. ☎ **943 531 648 / 669 916 148**
- Bulegoa salgai, Elgoibar erdigunean. 25m2. komuna dauka. 36.000 euro. ☎ **677 731 061**

### PARTIKULARRAK

- Magisteritza ikasleak klase partikularrik ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2. maila. ☎ **634 588 605**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Gure portalean etxe jabe batek hainbat kuota zor ditu 2013tik. Iazko uztailean batzar bat egin genuen eta zor zuena ordaintzea eskatuko geniola adostu genuen, eta baita bere kontrako auzi bidea hasteko abokatu bat hartuko genuela ere. Orain, urtarrilean, beste batzar bat egin dugu. Orain arte zegoen pertsona aukeratu dugu berriro presidente, eta iazko kontuez galdetu zaionean, hark esan du ez zaiola iruditu auzitegira jotzea**

**eta baztertua zuela gaia. Presidenteak hartu dezake batzarrean hartu zenaz besteko erabaki bat bere kabuz?**

Batzarrak hartu behar ditu interes nagusiko diren gaien inguruko erabakiak: besteak beste, urteko kontuak onartu eta likidazioak egin, hurrengo urterako diru sarrera eta gastuen plana onartu, aurrekontuak onartu, erai-kinaren berritze obrak eta Gobernu karguen aukeraketa. Auzitegira jo eta zordunari zorra erreklamatzeko batzar-rrak hartutako erabakia interes orokorreko gaia da, eta beraz, batzarrek du azken hitza. Beraz, presidentea —eta presidenterik ezean, administratzailea—, derrigortuta dago hor hartutako erabakia betetzera.


**Gomendioa: Kasu honetan, hartutako erabakiak bete ez izanaren erantzukizuna exijitu ahal izango zaio presidenteari eta baita erabaki hori inongo arrazoirik gabe atzeratu izanak sortu dituen kalteen gainekoa ere.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Zorionak, **Aratz**, zure lehenengo urtebetetzeari! Muxu potolopotolo bat, familiako denon partez, eta bereziki anaia Axularren partez.



• Zorionak, **Aimar**, gaur, hilak 21, 5 urte egin dituzulako. Familiako partez, patxo handi bat.



• Ongi-etorri, **Aimar Blanco Gantxegi**, otsailaren 7an jaio zinelako. Zorionak, Alvaro, Eneritz eta Julen. Muxuak, familiako partez.



• Zorionak, **Helenka**, 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak **gure etxeko lehoiari**. Azkenean iritsi da zure eguna... 5 urte! Oso ondo pasa, eta muxu asko, aita xoren, ama xoren eta etxeko en partez.



• Zorionak, **Mikel**, astelehenean 6 urte bete dituzulako. Primeran pasatuko dugu zure festan. Muxu handi bat, batez ere Alexen partez.



• Zorionak, **Ibai**, datorren asteartean 6 urte egingo dituzulako. Muxuak, aita, ama eta, bereziki, Ikerren partez.



• Zorionak, **Jakes**, potxolo! Igandean 2 urte txo! Muxu handi bat, Xubanen partez.




• Zorionak, **Ibon**, zure zazpigarren urtebetetzeari. Familiako en, eta bereziki, Koldoren eta Noraren partez.



• Zorionak, **Ane**, larunbatean 3 urte egingo dituzulako. Muxuak, familiako partez, eta bereziki neba Josuren partez.



• Zorionak, **Malen eta Noa**, hilaren 5ean eta 20an urteak egin dituzuelako. Patxo potolopotolo bat etxeko en partez, guapak!



• Zorionak, **Dorleta eta Goiatz!** Gaur urte bat eta bihar 11. Muxu handi bat, familiako en partez, bereziki Udane eta Eleneren partez.



## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**4'50€**

Argazki bikoitza:

**7€**

Hirukoitza:

**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**3'50€**

Argazki bikoitza:

**6€**

Hirukoitza:

**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**12€**

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

## 21 barixakua

### Bideo forum

21:30 'Comprométete'

Haizeak antolatuta, *Comprométete* filma landuko dute Loredi Salegirekin, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kafea eta pastak banatuko dituzte.

## 22 zapatua

### Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Baserriko produktuak jarriko dituzte salgai, Kalebarren plazan, eta ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre plazan. Herri Eskolako guraso taldeak pintxoak salduko ditu txosnan, eta umeentzako gatzatu tailerra ere egingo dute.

### Gure Esku Dago

17:00 Informazio mahaia

Kalegoen plazan.

## 23 domeka

### Mendia

9:30 Mendi irteera

Ikastolako familiak Elosumendira (621m.) egingo dute irteera. Gaztetxe pareko aparkalekuan batuko dira.

## 24 astelehena

### Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, Iberiar Penintsulako mitoak landuko dituzte Carmen Aguirre historialariarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 25 martitzena

### Literatura

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, *El mapa y el territorio* liburua landuko dute, Udal Liburutegian.

## 28 barixakua

### Inauteriak

15:15 Euskal Inauteria

Ikastolako umeen Euskal Inauteria. Kalejiran joango dira Ikastolatik Kalegoen plazara.

17:00 Mozorro festa

Ludotekan.

### Musika

23:00 Kontzertua

Inauterietako kontzertu berezia eskainiko du Sinuosek, Kultur Etxeko sotoan.

## ZINEA

### «Ismael»

21, barixakua: 22:15  
22, zapatua: 19:00/22:15  
23, domeka: 19:00  
24, astelehena: 21:30



### «Dinosauroen artean»

16, domeka: 16:30



## BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

| 09:00 - 22:00  | 22:00 - 24:00                        | 24:00 - 09:00  |
|--|--------------------------------------|--|
| 21 Barrenetxea<br>22 Ibañez<br>Goizez: Barrenetxea<br>23 Ibañez<br>24 Yudego<br>25 Etxeberria<br>26 Fernandez<br>27 Yudego | Astelehenetik igandera<br><br>Yudego | Azkue (Eibar)<br>Toribio Etxebarria 4<br>(943 202 344) |

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

Zertaz mozorrotuko zara inauterietan? Makillatzaile profesional bat etorriko da gaztelekura gure aurpegiak margotzera. Ez galdu aukera eta eskatu txanda.



Inauteriak ludotekan: otsailaren 25etik 27ra mozorro tailerra. 28an mozorro festa: merendola eta mozorro lehiaketa. Sariak mozorrorik onenentzat.

ESKERTZA


## BITTOR ALBERDI ELORZA

"Patxillo"

*Argi bat itzali da  
hemen lurrean.  
Berri bat piztu da,  
han, zeru ederrean.  
Beti jarraituko duzu  
gure bihotzean.*

Familiakoak

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana



## BITTOR ALBERDI ELORZA

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Aitorren koadrilakoak



## BITTOR ALBERDI ELORZA

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

*Beti izango haiz gure gogoan.*

Elgoibarko Kimetz Elkartea



## BITTOR ALBERDI ELORZA

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

*Zure tronpeta doinuak betirako izango ditugu gurekin.*

Mauxitxa Txaranga



## BITTOR ALBERDI ELORZA

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

*Beti izango zara gure artean.*

Elgoibarko Udal Musika Banda



# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak

RPS 49/12



**EIBAR**  
San Juan kalea, 7  
**943 82 18 85**